

 kutxabank	FACTORINGA	EPIGRAFEA 11
	Egun honetatik indarrean: 2019.01.08	1. orria 1(e)tik

1. Factoring-kontratuko kreditu orokorraren muga irekitzeko, berritzeko edo handitzeko komisioa (lagatzaileari funtsak aurreratzeagatik).

Kontratutako kredituaren mugaren gaineko % 2,00, kontratua formalizatzean eta ondorengo hedapenetan aldi bakar batean kobratzekoa. 100 euroko gutxienekoa.

2. Zordunen azterketagatiko eta sailkapenagatiko komisioa (lagatako kredituengatik).

Zordun bakoitzari emandako factoringa aztertzeko, berritzeko eta hedatzeko eskaerarengatik % 1,00, nahiz eta eragile izatera ez iritsi, erakundearen esku ez dauden arrazoiengatik. 100 euroko gutxienekoa.

3. Factoringagatiko komisioa.

Arrazoi hauengatik finkatuko da: kontabilitateko egoera-orrien administrazioa, zordunaren aurreko hainbat kudeaketa, lagapenaren jakinarazpena, kobrantza-kudeaketa eta abar.

Faktura sorta finkatzean kobratuko da, lagatako kreditu bakoitzaren zenbateko nominalaren gainean:

Baliabidearekin: % 4,25. Gutxienez 30 euro.

Baliabiderik gabe: % 4,75. Gutxienez 30 euro.

4. Kontratua edo horren bermeak aldatzeagatiko komisioa.

18 euro (komisio bakarra), bezeroak hala eskatuta, dagoeneko lagatako kredituko datuetan egindako aldaketa bakoitzeko 90 euroko gutxienekoarekin. Adierazitako komisioa eta dagozkion interesak jasoko dira, epea zabalduz gero.

Kontratu-aldaketatzat edo bermeen aldatetzat joko da bezeroak hala eskatuta kontratuan izandako eta erakundeak onartutako aldaketa oro, hauei dagokienez: esku-hartzaileen aldaketa, mugaegunen, mugen eta likidazio-baldintzen aldaketa edo hasieran sinatutako dokumentuan kontratu-aldaketa ekar dezakeen beste edozein aldaketa.

5. Kobrantza-dokumentuen itzulketagatiko komisioa.

Kobrantza-dokumentu bakoitzean ordaindu gabeko kopuruaren gaineko % 5 (factoringa baliabidearekin soilik).

Gutxienez 30 euro.

6. Aurrerakinak alde aurretik kitzatzeagatiko komisioa

% 5,00ko komisioa jasoko da, faktura bakoitzeko 1,80 euroko gutxienekoarekin.

7. Mugaeguneratutako posizio zordunen erreklamazioagatiko komisioa. (3. oharra).

Bezeroak (lagatzaileak) ez ordaintzeagatiko egoera bakoitzean, mugaeguneratutako posizio zordunak sortzean, 35,00 €-ko zenbateko finkoa jasoko da, erregularizatzeko eskatzen duen idatzizko lehen erreklamazioa egiten denean.

1. oharra Posta-gastu gisa jasoko dira eskaintza edo ordainketarako dokumentu bat bidaltzen edo igortzen den bakoitzean sortutako gastuak une bakoitzean indarrean dauden postatarifen arabera. Era berean, sortutako telefono eta abarretako gastuak jasoko dira.

2. oharra Fede-emaile publikoaren esku-hartzeagatiko gastuak bezeroaren kontura izango dira. Behar bezala justifikatuta egon daitezkeen kanpo-izaerako beste edozein kontzeptu bezeroari jasanaraziko zaio osorik.

3. oharra Lagatzailearengandik jasoko da “baliabidea duten” eragiketetan, lagatzailearen funtsen aurrerakina gertatu den kasuetan eta zorra gaindituta erreklamatzeko lanak hasi behar direnean, kobrantzako ekintza arrunten ostean.

“Baliabiderik gabeko” eragiketetan, lagatzailearengandik jasoko da komisio hori, zorra gaindituta, lagatzaileak erosketa- edo zerbitzu-kontratua ez betetzeagatik igorleak ordainduko ez balu. Kobratzeko ekintza arrunten ostean, erreklamazioarako kudeaketa-lanei ekin behar zaienean kobratuko da.